

2023ko martxoaren 31, ostirala

## BESTELAKO XEDAPENAK

LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA

1595

*EBAZPENA, 2023ko martxoaren 17koa, Garraio Plangintzaren zuzendariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko errepideko garraio publikoaren arloko elkarte profesional eta enpresarialentzako laguntza-programa ezartzen duen 2022ko ekainaren 28ko Aginduan aurreikusitako laguntzen onuradunen zerrenda.*

Dirulaguntzak emateko jardunean errespetatu behar den publikotasun-printzipioa betetzeko, 2022ko ekainaren 28ko Aginduak 11.3 artikuluan xedatzen duenez, dirulaguntza guztiak emandakoan onuradunen zerrenda eta emandako diru kopurua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko dira.

Hortaz, aurreko lerroaldean zehaztutakoaren arabera, honako hau

### EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Jendaurrean jartzea Euskal Autonomia Erkidegoko errepideko garraio publikoaren arloko elkarte profesional eta enpresarialentzako laguntza-programa ezartzen duen Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2022ko ekainaren 28ko Aginduan aurreikusitako laguntzen onuradunen zerrenda, eta emandako diru-kopurua, Garraio Plangintzaren zuzendariak bere eskumenak erabiliz eman dituen ebazpenen arabera. Ebazpen honen eranskinean doaz onuradunen zerrenda eta emandako diru-kopurua.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko martxoaren 17a.

Garraio Plangintzaren zuzendaria,  
IVAN PEDREIRA LANCHAS.

2023ko martxoaren 31, ostirala

## ERANSKINA

Euskal Autonomia Erkidegoko errepideko garraio publikoaren arloko elkarte profesional eta enpresarialentzako laguntza-programa ezartzen duen Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2022ko ekainaren 28ko Aginduan aurreikusitako laguntzen onuradunak eta emandako dirulaguntzak.

Onuraduna	Dirulaguntza (euro)
Asociación de Transportistas Autónomos Vascos	13.225,00
Ateaia Euskadi-Olt, Federación de Transitarios, Organización para la Logística y el Transporte	13.480,90
Euskalerriko Garraiolarien Sindikatua - Egas	21.500,00
Federacion Vasca Asociaciones Empresariales de Transporte Fevatrans	21.466,26
Federacion Vasca del Taxi	12.000,00
Hiru Garraiolarien Sindikal Konfederazioa	15.204,38